

# SHREC ekimenerako Arrasateko lan-taldea hasi da lanean

Xabi Gorostidi 2020-01-17 10:02



SHREC proiektuko lehen bilera parte duten eragileak, asteazkenean. (Argazkia: Arrasateko Udala)

Energia berriztagarrien erabilpena areagotzea helburu duen europar proiektua da, eta aste honetan egin du lehen bilera Arrasateko lan-taldeak. Hauek dira partaideak: Udala, Goiener, Mondragon Unibertsitatea, Ikerlan eta Fagor Taldea. Debagoiena 2030 Berrikuntza Plataformak ere bat egin du proiektuarekin eta aurrerago H-Enea Living Lab enpresak ere hartuko du parte.

SHREC proiektuaren helburu nagusia da publikoak hobetzea, energia-iturri berriztagarriak zabaltzeko eta, era berean, energia horien ekoizpena eta kontsumoa sustatu eta errazteko enpresetan, auzo-komunitateetan edo etxebizitza partikularretan, karbono gutxiko energia-eredura iristeko.

Maria Ubarretxena alkateak oso aberasgarritzat jo du lehen bilera: "Uste dugu trantsizio energetiko hori ez dagokiola Udalari bakarrik, eta horregatik, garrantzitsutzat jo dugu herriko eragileak prozesuan inplikatzea. Elkarrekin gehiago gara, aberatsagoa da jarduna eta herriko zein bailarako iritzi ezberdinak uztartuko ditugu horrela, eredu egokiena kontsentsuz aurrera atereaz eta berritzaileak izan daitezkeen proiektu pilotuak martxan jarritz".

Gaur egun, Arrasatez gain, SHREC proiektua Europako beste zazpi erakundek osatzen dute: hiru unibertsitate - Lituaniako Vilnius Gediminas Unibertsitatea, Herbehereetako Zientzia Aplikatuak Hanze Unibertsitatea eta Suediako Mid Sweden Unibertsitatea - Gobernu mailako hiru energia-agentzia - Eslovakiako berrikuntza- eta energia-agentzia, Frantziako Auvergne Rhone-Alpeen ingurumen- eta energia-agentzia eta Errumaniako Munteniako iparraldeko eskualdeko garapen-agentzia - eta eskualdeko gobernu bat - Italiako Piamonte eskualdea.

"Egia da Arrasate erreferentzia dela Europar gizarte-berrikuntzari dagokionez, baina oraindik aurrera-pausuak emateko bidea dugu energia berriztagarrien arloan. Hori dela eta, Arrasate gai askotan puna-puntuak izan da beti eta trantsizio energetikoari dagokionean ere berritzaileak izan nahi dugu biztanlego inplikatzen, horretarako proiektu pilotu bat abian jartzea da ideia. SHREC proiektuak 1.844.165 euroko aurrekontua izango du. Aurrekontu horretatik, 164.448 euro Arrasateko proiekturako erabiliko dira, eta %90 inguru Europak finantzatuko du. Maria Ubarretxena alkateak esan duenez, "SHREC elkarren arteko etengabeko ikaskuntza-prozesua da, eta, prozesu horretan, bazkide diren erakunde eta erakunde guztiok elkar aberastuko dugu helburu bakar bat lortzeko: gure etorkizuna eta gure planetarena diren energia berriztagarrietarako bidean eta trantsizioan aurrera egitea".

[Gizartea Arrasate](#)


## ALBISTEAK MUGIKORREAN

Debagoieneko albiste nabarmenenak eta azken ordukoak Whatsapp edo Telegram bidez jaso gura dituzu? Harpidetu zaitez doan!



**WHATSAPP:** Bidali ALTA 688 69 00 07 telefono zenbakira –Whatsapp bidez–.

**TELEGRAM:** Batu zaitez [@GoienaAlbisteak](#) kanalera.

Erantzun ▼



## Ikusienak



[Azken orduetan ez da positibo gehiagorik egon Debagoiengan](#)

[Koronabirusa Debagoiengan](#)

Oihana Elortza api 13, 13:17 [Debagoiena](#)

[Ezkontzeko data atzeratu egin behar izan dute Ainhoa Herruzok eta Ruben Solisek](#)

[Koronabirusa Debagoiengan](#)

Txomin Madina api 12, 19:00

[Aretxabaleta](#)



[Bideo baten batu dituzte osintxuarrek Aberri Egunean ateratako argazkiak](#)

[Koronabirusa Debagoiengan](#)

Oihana Elortza api 13, 10:01 [Bergara](#)



[Beste hiru egoiliar hil dira Iturbide egoitzan](#)

[Koronabirusa Debagoiengan](#)

Oihana Elortza api 13, 18:57 [Debagoiena](#)



[Ikurrinak balkoietan Aberri Eguna ospatzeko](#)

Oihana Elortza api 12, 11:05 [Debagoiena](#)



[Lur jausia izan da Andraitzeko lepotik Zegamara bitartean](#)

Oihana Elortza api 13, 18:42 [Oñati](#)

## Goiena.eus

Goiena Komunikazio Taldea



Otalora Lizentziaduna 31 · 20500 Arrasate (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 25 05 05 · berriak[ABILDUA]goiena.eus



Codesyntaxek garatua



HONI BURUZ

LEGE OHARRA

PUBLIZITATEA

ARAUAK

HARREMANETARAKO

RSS



Gipuzkoako Foru Aldundia

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILAArrasateko  
UdalaBergarako  
UdalaOñatiko  
UdalaAretxabaletako  
UdalaEskoriatzako  
UdalaAntzuolako  
UdalaAramaioko  
UdalaElgetako  
UdalaLeintz Gatzagako  
Udala

## Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)[AIKOR](#)[ANBOTO](#)[ATARIA](#)[BALEIKE](#)[AIURRI](#)[ERRAN](#)[EUSKALERRIA IRRATIA](#)[GOIENA](#)[GUAIXE](#)[HIRUKA](#)[KARKARA](#)[MAXIXATZEN](#)[PLAENTXIA](#)[ALEA](#)[28 KANALA](#)[ANTXETA](#)[BARREN](#)[ERLO TELEBISTA](#)[GEURIA](#)[GOIERRI TELEBISTA](#)[KRONIKA](#)[MAILOPE](#)[NOAUA](#)[DEUSTUALDEA PREST](#)[TXINTXARRI](#)[URIOLA](#)[UZTARRIA](#)[AMEZTI](#)[OIZMENDI TELEBISTA](#)[Gurean](#)[Plazanbazan](#)[Itap](#)[Tokikom publizitatea](#)